



**AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**  
**BERRIOZARKO UDALA**

**“URTXINTXA” BERRIOZARKO UDAL HAUR ESKOLAN MATRIKULA EGITEA**

**2015eko MAIATZAREN 21etik 29ra.**

**Tokia: Berriozarko Urtxintxa Haur Eskola (Errota, 6).**

**Ordua: 8:30etik 11:30era.**

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- Matrikularen kuota ordaindu izanaren ordainagiria. 50 euro sartu behar dira Caixa Bank-eko **2100.5184.57.2100248980 kontuan. Umearen izen-abizenak agertu behar dira ordainagirian.**
- Haurra inskribatua agertzen den Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia. Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek.
- 2014ko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Aitorpenaren fotokopia, aitarena eta amarena, edo, halaxe badagokio, 2014. urtean lortutako diru-sarreraren frogagiriak. Agiri hauek 2015ko ekainaren 30a arte aurkeztu daitezke. Ez bada agiririk aurkezten gehienezko kuota ezarriko da. Ez dute agiri hori aurkeztu beharko gehienezko kuotari dagokion errenta edo altuagoa daukaten pertsonak, hau da, 15.000€ per capita.
- Errentaren aitortpena egiteko beharrik ez badute, horrela egiaztatzen duen Nafarroako Gobernuaren agiria auzeratu beharko da, baita lan-bizitzaren agiria eta familiaren 2014ko diru-sarrerak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren agiriak ere.
- Beste udalerrri batean bizi diren haurren kasuan, modulutik udalari dagokion portzentajea finantzatu izanaren egiaztagiria. Finantzaketa hori bizilekuko udalaren edo familiaren beraren kontura izanen da.
- Ordainagiriak helbideratzeko, banku entitatearen libretaren orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituenak. Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek, kontu-zenbaki bera baldin badute.
- Halaxe badagokio, txosten medikoa, elikaduraren edo osasunaren aldetik behar bereziak azalduko